

# NBEko giza eskubideei buruzko ikerketa zentroko lehendakariak bakeari eta giza eskubideei buruz hitz egingo du Mondragon Unibertsitatean

2014/03/04

Nazio Batuen Erakundeko (NBE) Giza Eskubideei buruzko Ikerketa Zentroko lehendakariak, Park Kyung-seo irakasleak, bakeari eta giza eskubideei buruzko hitzaldia eskaini du gaur, asteartean, Mondragon Unibertsitateak Oñatin duen campusean. Kyun-seo giza eskubideen defendatzaile ospetsua da nazioartean. Hori dela eta, Mondragon Unibertsitateak gonbidapena luzatu dio, bere ikuspegia eman dezan XXI. mendeko biztanleek aurretik dituzten erronken inguruan: bakearen mezulari bilakatzea, giza eskubideekin adiskidetzeta eta ingurumena babestea. Labur esanda, pertsonen osotasun eta eskubideetan eta ingurumen-eskubideetan oinarritutako garapen ekonomikoaren eredia aplikatzea.

## Park Kyun-seo

Park Kyun-seo irakaslea Suncheon hirian jaio zen, Jeollanam-do lurraldean (Hego Korea), eta soziologia ikasi zuen Seulgo Unibertsitate Nazionalan. Soziologian doktoregoa lortu zuen Göttingem-eko Unibertsitatean (Alemania), ondoren Filosofian Honoris Causa doktoregoa Indiako Teologia Ekumenikoko Akademian (Serampore, Indiako Unibertsitatea) eta geroago Jainkotasunean ohorezko doktore-gradua Edinburgoko Unibertsitatean (Erresuma Batua).

Kyun-seo irakasleak 18 urtez jardun zuen Elizen Mundu Kontseiluan lanean, Genevan (Suitza), Asiako idazkariorde eta Asiako lantaldeko lehendakari gisa. Denboraldi horretan bidaia ugari egin zituen Asiako 31 herrialdetara eta garapen-bidean dauden Afrikako eta Latinoamerikako beste herrialde askotara. Oso aktiboa izan da eta herrialde horietara eramane du bakeari eta giza eskubideekiko errespetuari buruzko mezua. Era berean, herrialde horietako herritarren kezka ezagutzeko jakin-min bizia erakutsi du.

Giza eskubideen defendatzaile sutsua izanik, Koreako Errepublikako misio bereziko enbaxadore izendatu zuten 2001eko otsailan, eta 7 urtez jardun zuen kargu horretan. Era berean, ardura handiko karguak izan ditu Koreako Errepublikako gobernuan: Giza Eskubideen Batzorde Nazionalako komisario nagusia, Bateratze Ministerioko Politika Batzordeko lehendakaria eta Koreako Politika Nazionalaren Agentziako Giza Eskubideen Batzordeko lehendakaria.

Gaur egun, NBEko Giza Eskubideei buruzko Ikerketa Zentroko lehendakaria, NBEko Giza Eskubideen Mundu Sustapenerako Batzordeko lehendakaria eta Koreako Kooperatiben Kudeaketa Zentroko lehendakaria da. Horrez gain, Koreako Kooperatibismoa Eratzeko Zentroaren aholkularia da. Ildo horretan, Mondragon Unibertsitateak duela gutxi bereganatu du zentro horren aholkularitza.

Bakearen defendatzailea eta mezularia den aldetik, NBEko giza eskubideen alorreko aditu horrek hainbat liburu idatzi ditu bakearen eta giza eskubideen sustapenari buruz, Korearen adiskidetzeari eta bategiteari buruz eta Koreako penintsulari buruz. Halaber, hitzaldi ugari eskaini ditu gai horietaz.

## Bakearen enbaxadorea

Park Kyung-seok, giza eskubideen eta pertsonen osotasunaren defendatzailea den aldetik, munduko bazter guztietan bakea nagusitzeko eta pertsonen giza eskubideak beste edozeren gainetik lehenesteko beharra aldarrikatzen du suharki.

NBEko giza eskubideen adituaren arabera, XX. mendeko hazkunde-eredua eredu okerra izan zen. Izan ere, funtsezko gaietan, hala nola giza eskubideetan, pertsonen osotasunean eta ingurumena babestean, oinarritu beharrean, zifra ekonomikoaren diktaduran oinarritu zen. Bere



ustez, XX. mendeko eredu nazio-segurtasunak oso garrantzi handia zuen nazioen garapen ekonomikorako. Horren ondorioz, pertsonen funtsezko eskubide batzuk alboratu egin ziren. Kyung-seo konbentzituta dago munduan eredu horren porrotaren inguruan nahiko adostasun handia dagoela, eta bere hitzetan 'XX. mendea dagoeneko atzera utzi dugu eta iraganeko hutsegite berak errepikatuko ez ditugun uste osoaz bizi dugu mende berria'. Bere iritziz, natura-hondamendiek sorturiko biktima kopuruak eta kalte materialek gora egin dute mundu osoan. Horrek XX. mendeko garapen-ereduaren porrota agerian jartzen du. Eredu horretan, hazkunde ekonomikoaren lasterketa zorabiagarriak ez zuen uzten ingurumena babesteko lekurik.

Orain, dagoeneko XXI. mendean sartuta gaudenean, bada garaia nazioen lehentasunen zerrendan pertsonen segurtasunak eta duintasunak dagokien lekua izateko. Natura-hondamendiak, gerrak eta pertsonen duintasunaren aurkako ekintzak prebenitzeko erabili behar dira metaturiko ezagutza eta esperientzia. 'Giza duintasuna ez da sakrifikatu behar, eta denok lan egin behar dugu hori babesteko, baita giza segurtasuna, giza eskubideak eta ingurumen-eskubideak babesteko ere'.

NBEko Giza Eskubideen arloko adituaren arabera, denok lan egin behar dugu aktiboki, bakearen alde egiteko eta munduko txoko guztietara bakearen mezua eramateko.

'XXI. mendean, bakearen mezulariak eta gogorarazleak izan behar gara eta harekin bakeak egin behar ditugu'. Hitz horiek argitzeko, ohikoa da bakearen enbaxadoreak gizateriak jasandako gerren ondorioz hildako pertsonen zifra beldurgarriak errepasatzea. Koreako Gerrako 4,5 milioi hildakoak, Irakeko Gerrako hildakoak, Asiako gatazkak eta beren giza eskubideak babesteko hainbat eta hainbat herriren borrokak, behin eta berriz historian zehar errepikatu direnak. Zerrenda luzea eta bukaezina da, eta beren eskubideak babesten bizitza galdu duten pertsonen zerrenda luze eta mingarria daramate gatazka horiek bizkar gainean.